

TAGHIA EGUZKIZ BLAI

Tolosaldetik joandako espedizio bikainak lortu du proiektua borobiltzea

Taghia Eguzkiz Blai projektuko kideak maiatzaren hasieran izan ziren Marokon, azken bi urteotan garatu duten ekimena borobiltzen. Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan landutako ur-bomba fotovoltaikoa martxan jarri zuten Taghian, Atlas Garaian kokatutako herri urrun bezain ikusgarrian, orain artean urik eskura ez zuten etxe askori ur hornidura ahalbidetuz.

Mikel Arregik, Oihana Mendizabalek eta Ugaitz Azkarai 30 pertsonatik gorako espedizioan parte hartu zuten. Arregi irakaslea da eta proiektuaren logistikaz eta atal teknikoaz arduratu da; Mendizabal ere irakaslea da eta, denetik egitea tokatu den arren, diru kontuen kudeaketan aritu da batez ere; eta Azkarai Mekatronikako ikaslea da, Taghiara bidaiatu zuten lau ikasleetako bat.

Pozik aurkitu dugu hirukotea, jarritako helburuak bete izanaren harrotasunarekin. Nekatuta ere bai, ohiko lanaz gain ordu asko eskatu dizkien erronka izan delako. Hori bai, argi dute esperientzia aberasgarria izan dela parte hartu duten guztientzat.

«Sekulako esperientzia izan da niretzat. Arlo teknikoan, mundu hau ez nuelako ezagutzen, baina batez ere bizipen bat izan da. Ikusi gauzak zenbat aldatzen diren, bizimodu oso desberdina daukatela han, eta nire ikuspegitik behintzat konturatu naiz ze zortea daukagun hemen bizituta», onartu du Ugaitzek.

IDEIA LANTZEN

Jada ezaguna den arren, kome-
ni da Taghia Eguzkiz Blai eki-

 **LANKIDETZA** / Asier AIESTARAN

Marokoko Taghia herrian ur-bomba fotovoltai-
ko bat jar-
tzeko proiektuak lortu du bere helburua. Bizpahiru urtez
luzatu den lan esker-
garen ondoren, maiatzaren hasieran
bidaiatu zuten Atlas Garaiko herrixkara ekimenaren sus-
tatzaileek, esperientzia ahaztezina biziz. Tolosaldea Lan-
bide Heziketa Institutuan izan gara beraiekin.

mena nola sortu zen aipatzea. In-
ñaki Arakistain eta Aitzol
Odriozola eskalatzaileek pan-
demia garaian kirol horren pa-
radisu-
etako bat den Taghiara
egindako bidaian ere in-
zen
hazia. Atzeritarrik gabe gera-
tua zen mendi inguru hartan
asko gozatu zuten bi gipuz-
koarrek, baina etxera helduta-
koan han jaso zuten guztia no-

labait itzultzeko arra ere eka-
rri zuten barnean.

In-
ñakik Taghiako lagunei gal-
detu zien ea zer behar ikusten
zuten, eta bilera baten ostean
arazo nagusia ura zela aipatu
zioten. Taghian bi ur depositu
daude, bat behean eta bestea
goian, baina ura goikora pun-
patzeko ur-bomba gasolio bi-
dezkoa zen, eta herrian ez zu-

ten baliabiderik hori martxan
jartzeko.

«Ur hornidura ona daukate,
baina altuera batetik gora ge-
ratzen diren etxeek jada ez
daukate urik. Bomba gasolio
bidezkoa da eta aurreneko
egunetik konturatu ziren ez
zela bideragarria. Horregatik
aukeratu da ponpaketa foto-
voltai-
koa, beraientzat doan
delako. Orain arte ez zeukaten
dirurik metalikoan. Ditutzen
sei "gite" (mendizaleentzat
aterpetxeak) horiekin orain
hasi zaie metalikoa sartz-
en, baina ez dago soberakinik
bonba bat martxan edukitze-
ko 24 orduz», azaldu digu Mi-
kel Arregik.

«Ez da asko azpimarratu,
baina In-
ñakik ongi egin zuen
gauza bat izan zen beraiei gal-
detzea ea zer behar zuten. Ze-

Mikel Arregi, Oihana
Mendizabal eta Ugaitz
Azkarai, Tolosaldea LHI-n
aste honetan bertan
egindako elkarrizketan.
Jagoba MANTEROLA | FOKU



ren hemen askotan egiten dira janari bilketak, arropa bilketak... baina Iñakik alderantziz egin zuen, beraiei galdetu zer behar zuten. Bilera bat egin omen zuten herrian eta ponpaketarena aipatu zuten, une hartan kritikoena beraiek uraren gaia ikusten zutelako».

LEHEN PAUSOAK

Iñaki Arakistainek, mendizale komunitatea mobilizatzeaz gain, irakasle aritu zen Toloaldeko LHI ikastetxean proposatu zuen proiektua garatzeko ideia. Mikelek eta Oihanak argi izan zuten hasieratik ez zela erraza izango, baina ezezkoa ez zen aukera bat.

«Betidanik geneukan gogoia eguzki indarrarekin zerbait egiteko. Askotan teoriarazten gara eta honek aukera ematen zigun zerbait errealtatean gauzatzeko. Aplikazioari dagokionez, non erabiltzeko zen ikusi genuenean, oso egokia iruditu zitzaigun: lekuagatik, zituzten beharengatik... Eta animatu egin ginen», gogoratu du Agirrek.

Hori bai, ikastetxe bateko jarduera arruntetik dezente aldentzen zen proiektua: «Guk irakasle bezala erronka onartu genuen, baina orduz kanpoko lana izan da. Eta beste oztopoa dirua zen. Iñaki etorri zenean, honek oso baikor ikusten zuen dena, baina lau zenbaki egitea nahikoa zen ikusteko diru asko beharko genuela. 50.000 euro inguruz ari ginen».

Bideragarria ote zen? Oihanak dio hasieratik nahiko argi ikusi zuela baietz, eta merezi zuela ikasleekin horrelako gai bat lantzeak. «Administrazio arlori galdezka etorri zirenean, nik ez nuen zalantzarik izan, argi ikusi nuen posible zela eta baiezkua eman behar genuela. Iaz Amina eta Fatima

«Ezin genion ezetz esan Iñakiri (Beristain, sustatzaile nagusia), ikastetxean baliabideak edukita: soldadura, elektrizitatea...», gogoratu du Mikel Arregik ideia jaso zuten unea

«Egunerokoan ikasleekin izaten dugun harremana gertukoa da, baina hau harago doa. Aste osoa elkarrekin, bizipen oso intentsoak izan dira», dio Oihana Mendizabal irakasleak


geneuzkan Lehen Mailan, Marokoko jatorria dutenak, eta ikusi nuen ikasleekin lantzeko ere egokia izan zitekeela. Ikastetxe bat gara eta zentzua hortik zeukan lan honek». Enpresa, norbanako eta babesleen aldetik izandako erantzuna ere bikaina izan omen da.

Eta ikasleen ikuspuntua ere ezagutu nahi izan dugu, Ugaitz Azkararen ahotik. «Gure borondatez apuntatu ginen, beraz, ez genuen honetan marroi moduan pentsatzen. Guk proiektu bat ikusi genuen eguzki panelekin, eta pentsatu genuen hor zerbait ikasiko genuela. Pozik apuntatu ginen. Eta gero esan zigutenean hara joan behar genuela, ezustekoa hartu genuen, eta poza ere bai», gaineratu du.

Halako batean iritsi zelako Taghiara joateko ordua. «Gure martxan gindoazen proiektua garatzen: dirua biltzen, ideia lantzen... Baina halako batean bertatik presa sartu ziguten, galdezka hasi ziren ea zertan ginen, eta data jarri behar izan genuen. Neguan ezin zen izan elurragatik, eta udan ere ez beroagatik, aukerak udaberria edo udazkena ziren. Udazkena guretzat kurtsua abiatzeko garaia izaten da eta udaberria hobe zela pentsatu genuen. Azkenean, maiatzaren 4a jarri genuen egutegian, eta behin eguna jartzean,

Eguzki panelak jartzeko prozesuaren bi une desberdin. Goian, oinarria prestatzen lehen egunetan. Behean, jada panelak bere lekuan kokatzen. TAGHIA EGUKIZ BLAI





orduan dena azkartu zen», ai-patu du Mikelek.

«Material asko kostu prezioan utzi digute, bidaiarako furgonetak ere utzi egin dizkigute... Azkenean aurrekontua dezente jaitsi zen hasierako 50.000 euro haietatik, eta horrek ere laguntzen zuen jada data bat jartzen. Proiektua bideragarria ikusten genuen, beraz 'joateko moduan gara' esan genuen», dio Oihanak.

MUGAN ARAZOAK

Oihana Mendizabal hegazkinez joan zen Fatima, Amina, Ugaitz eta Manex lau ikasleekin, eta Mikel Arregi errepidez, eguzki panelekin eta beste materialarekin. Hegazkinez joan zirenak arazorik gabe iritsi ziren Taghiara, espedizioa osatzen zuten beste boluntario gehienak bezalaxe, baina materialarekin zihoazenez mugan ezusteko arazo bat izan zuten.

«Arazoa izan zen gu turista bezala gindoazela Marokora, baina material industrialarekin, eta hor oztopoak jartzen dizkizute. Bageneraman hitzarmen bat Taghiako elkar-tearekin egina, esaten zuena donazio bat egiten ari ginela, alde hori ongi lotuta geneukan. Baina alderdi industrial, material horren identifikazioa eta Marokon sartzeko baime-nen arloa ez geneukan landuta, paper horiek falta ziren», ekin dio Mikelek azalpenari.

«Sekulako esperientzia izan da, bizipen bat. Ikusi gauzak zenbat aldatzen diren, bizimodu oso desberdina daukatela han, eta ze zorte daukagun hemen bizita», dio Ugaitz Azkaraik

«Han osatu genuen lantaldea azpimarratuko nuke», nabarmendu du Arregik bizitako giroaren inguruan. «Eguzkitik eguzkira lanean, eta, hala ere, txantxetarako gogoa beti»

Lantaldearen otordua. Une oro izan zuten giro aparta nabarmendu dute Mikel, Oihana eta Ugaitzek. TAGHIA EGUZKIZ BLAI

«Logika guztia zeukan, baina kontua da gu larunbat gauean heldu ginela, igandean ezin genuela paperik egin, astelehena ere bulego batera joan, bestera joan... konturatzerako pasatuta. Eta bitartean beste guztiak jada Taghian, 20 pertsonatik gora. Eskerrak egituraren oinarria egiteko porlana eta abar han erosteko asmoarekin joan ginen eta hori ba-zeukaten», jarraitu du.

Oihanak gogoratzen duenez, eguzki plaken oinarria egiten hasi ziren. «Lur eremua garbitu genuen, eta gurekin etorri ziren 14 boluntarioek sekulako lana egin zuten. Zer material geneukan begiratu zuten eta hurrengo goizean 'zapatak' egiten hasi ziren goizean goiz. Palak, aitzurrak eta antzekoak bertako jendeak utzi zizkigun, eta lanean hasi ginen».

«Hotzean begiratura, ez genuen denbora askorik galdu, oinarria egiteko, lehortzeko eta abar bestela ere denbora beharko genukeelako», gehitu du Ugaitzek.

Hori bai, kezka handia zen, bestela ere denboraz justu ibiltzeko arriskua zutelako. Eta komunikatzeko zailtasunek ere ez zuten laguntzen. «Estal-durarik ez geneukan han goian, eta mezurik ba ote zegoen jakiteko "gite" edo aterpetxeraino jaitsi beharra geneukan. Egun intentsoak izan ziren. 'Berririk ba al dago, Oihana?', galdetzen zidaten. 'Itxaron, banoa behera', dio barre artean. «Asteazken goizean iritsi ziren, eta iritsi bezain pronto 30 panelak gora, denborarik galdu gabe».

BERTAKOEN LAGUNTZA

Egun horietan bertako biztanleek emandako laguntza nabarmendu du Ugaitzek, mendiko baldintzetara hobeto

egokituta. «Astoezin asko lagundu ziguten. Sekulako aldapak zeuden eta 50 kiloko porlan zakuak igotzeko, adibidez, sekulako laguntza izan zen. Asto txiki-txiki batzuetan igotzen zituzten. Eta oragailurik gabe porlana egiten ere lagun-du ziguten. Gu hemen oragailuarekin ohituta gaude, hasieran esan ziguten han ere agian egongo zela, baina ez zen hala-korik azaldu, eta bertako jendea ohituta dagoenez, beraiek erakutsi ziguten zenbat kanti-tate bota eta nahasketak nola egin. Gu arlo teknikoan laguntzera joan ginen printzipioz, baina azkenean denetik egitea tokatu zen».

«Denek zekiten zein ginen eta zertara gindoazen –gehitu du Mikelek–. Bidean norbait ikusten bazenuen denek 'saha' edo 'gracias' esaten zizuten eta beren bidea jarraitzen zuten». Eta Oihanak azken egu-nean egindako ospakizun berezia gogoratu du: «Azken egunean, dena muntatuta-koan, bazkaria antolatu ziguten han goian. Iman-a etorri zen, Koran-a errezatu genuen...». «'Un ble ble' eginez ospatu genuen; hori bai, tearekin», gaineratu du Mikelek.

Izandako harreman horretan, edo izan ez dutenean hobeto esanda, pena bat geratu zaio Oihana Mendizabali. «Emakumeak ikusi ere ez ditugu egin. "Gite"-an lan egiten zutenek egun guztia sukaldean pasatzen zuten, eta guk alde egindakoan ateratzen ziren garbitzera. Neska gazterik ez da ikusten. Egongo dira, baina ez dira ikusten. Azken egu-nean egin genuen bazkarian ere ez zen emakumerik etorri, Amina, Fatima eta ni ginen emakume bakarrak. Neska txikiren bat, 10 urte edo izango zituena, baina hortik gorako-

rik batere ez. Ez dut harremanik izan hango emakumeekin, ez dut lortu», dio atsekabez.

GERTUTIK JARRAITU

Behin instalazioa martxan jarrita, Taghia Ekuzkiz Blai proiektua amaitutzat eman daiteke, baina egia da Tolosatik jarraipen bat egiten dela. «Printzipioz mantenu gutxi behar du. Eguzki plakak garbitzea eta hausten diren piezak konpontzea, nahiko sinplea da. Egin genuen bileratxo bat bertakoekin mantenu lan horiek apur bat esplikatzeko. Eta konturatu ginen lekua nahiko haizetsua zela. Bertakoei hitza hartu genien harrizko hesi bat

egingo zutela instalazioa babesteko. Eta ezusteko txiki bat hartu nuen, konturatu ginelako hango jendea prestatuta dagoela. Dituzten baliabide apurrekin konponketa txikiak egiteko gaitasuna dute. Monitorizazio sistema bat ere jarri genion, arazoren bat badago SMS bidez mezuak iristen zaizkigu. Zer motatako akatsa izan daitekeen jakin dezakegu eta bertako ekipo elektronikoa kontrolatu».


Aurrera begira antzeman dute beste arazo bat sor daitekeela, ur deposituak txiki geratzearena. «Orain kontrako arazoa sortu da: kontsumoa handitu da eta depositua txi-

Bertako biztanleak ere gerturatzen joan omen ziren, eta lanean laguntzen. Kargak astoekin igotzen, porlana egiten... Azken egunean bazkaria egin zuten ospakizun moduan

Pena bakarra geratu zaie, bertako emakumeak ezkutuan geratzearena. «Ikusi ere ez ditugu egin. Azken egunean egin genuen bazkarira ere ez zen emakumerik etorri», dio penaz Oihanak

kia geratuko zaie. Hori ongi kudeatu beharko dute, depositua hustu egiten zutelako. Edo iturburutik hoditeria handitu beharko dute. Buelta bat eman beharko diote egoerari. Betikoa da: gutxi daukazunean as-

koz gehiago neurtzen duzu, baina iturria jartzen badizute... Baratzen bat ureztatzen ere ikusi genuen norbait, eta agian asmoa ez zen hori. Kudeatuko dute», aurreikusi du Mikel Arregik.



Bolondresak, asko suhiltzaileak ofizioz, jo eta ke lanean mendi ederrez inguratutako paraje zoragarrian.
TAGHIA EGUZKIZ BLAI